

## DURANGOKO XXXVIII. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAREKIKO KONTU-ERRENDAPENA

Durangon, 2003ko abenduaren 4, 5, 6, 7 eta 8an

Durangoko Liburu eta Disko Azoka, 2003. urteko abenduaren 4tik 8ra bitartean egin da *Landakosolo*-ko lur eremuan eraiki berri den erabilera anitzeko erakustazokan.

Euskaltzaindiak liburu-salmentarako stand bi alokatu zituen irailaren 29an. Bakoitzaren prezioa 635 euro.

Bestalde *Gerediaga Elkartek*, duela urte batzuk hasitako digitalizazio prozesuarekin jarraikiz, bere webgunean argialetxe desberdinetako produktuak izan ditu ikusgai. Euron artean, Euskaltzaindikoak.

Azken urteotako ohiturari jarraikiz, Azokan bertan ez da liburu berrien aurkezpenik egin. Ekitaldi honek izaten zuen oihartzun eskasa ikusirik, argialetxeek, Azoka aurreko egunak aprobeztatzen dituzte, beraien nobedadeak, liburudenda zein areto desberdinetan aurkezteko. Euskaltzaindiak, arrunki, argitalpena kaleratu ahala egiten du aurkezpena, Azokari itxaron gabe. Dena den, argitalpen batzuk promozionatu nahian eta egoera ekonomikoa uzten dion neurrian, Gerediaga Elkarteko agerkarian publizitatea jarri du Erakundeak. Bestalde, doan zenez gero, *Deia* egunkarian ere iragarri ditugu gure produktuak. Horretaz gain, prentsa arduradunak, Amaia Okariz andreak, Euskaltzaindiak Azokan aurkeztu duenaren informazioa helarazi die komunikabide desberdinei. Baita ere, lanik aipagarrienen berri ematen duen orritxo bat kaleratu da, Azokan izan diren bisitarien artean banantzeko.

Aurtengo edizio honetan, jarraikook izan dira, Euskaltzaindiak, paperean, aurkeztu dituen argitalpen berriak:

- *Euskera* 2002, 2;
- *Euskera* 2003, 1;
- Iker 13: *Euskalkia eta Hezkuntza*;
- Iker 14: *Gramatika eta Literatura ikerketak XXI. mendearen atarian (I, II)*;
- Iker 15: *Arnaud Oihenart: Euskal atsotitzak eta neurtitzak*;

- *Hondarribiko Toponimia*. Onomasticon Vasconiae, 23;
- *Morfología del verbo auxiliar suletino*. Pedro de Yrizar;
- *Lagun Mina*. Toribio Alzaga saria, 2002. Aitor Arana;
- *Bost Ahizpa*. Txomin Agirre eleberri saria, 2002. Aitor Arana;
- *Jean-Pierre Goytino eta Kaliforniako...* Mikel Zarate saiakera saria, 2002. Xipri Arbelbide;
- *Narrazioak eta Olerkiak 2002*. R.M. de Azkue sariak, BBK – Euskaltzaindia;
- *Euskaltzaindiaren Arautegia eta Barne-Erregelak*.

\* \* \*

Azokarako material eta tresnerien garraioaz, zein hauen instalazio eta egokitzeaz Lutxi Alberdi eta Jon Artza arduratu dira. Hurrengo egunetan Euskaltzaindiko langileak eta hauen zenbait senitartekok, alegia; Maider Agesta, Leioze Lizundia, Eneritz Areitio, Udane Badiola, Asier Legarreta, Txaber Zearreta, Joseba Sánchez, Leire eta Jose Telleria, Kimetz Altzibar eta lehengusinak, stand-ean txandak egin dituzte. Erankundeko stand-eko koordinatzaile Jon Artza izan da. Ostera, Erakundeko gai akademiko eta euskaltzain oso, urgazle, kide eta abarrekiko hartu-emanetaz –larunbat, igande eta astelehenean– Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea, arduratu da.

Guztira Euskaltzaindiko 80 argitalpen desberdin eraman dira Azokara. Argitalpenen hautaketa eta kopurua, aurreko urteetako salmentak kontuan hartuz egin da. Azokan zehar 172 liburuki saldu eta 100 inguru doan banatu. Haue-tako gehienak, 75 bueltan, argitalpen katalogoak izan dira. Salduena, *Hiztegi Batua* izan da nabarmen. Beste lanak arrakasta beretsua izan dute. Modu argi-ago baten azaltzeko «denetik apur bat» saldu dela esan dezakegu.

Durangoko Azokako aurtengo edizioan lortutako diru kopurua 1653,70 euro (277.000 pta) izan da. Iaz baino ia 40 euro gehiago, antzera samar bezaraz. Eta honen guztionen gainean egoki deritzogu zerbait eranstea:

- Orokorrean hartuta, prentsan aipatu izan da, aurten jendetza eta salmentak nabarmen gora egin dutela. Badirudi halere, irabaziak handitu dituztenak, argitaletxe handiak izan direla: Elkar, Txalaparta edo Pamie-la, kasuko. Hau guztia diogu, beste argitaletxe xumeagoekin hitz egin ostean, iaz baino gutxiago irabazi dutela adierazi digutelako.
- Gurera joaz, esan behar da *Euskal Izendegia* Azokarako berrargitaratu ezinak kalte egin digula. Urtero 30-40 ale saltzen baikenituen. Hala ere, gabezi hau ezagubide gutxiagoko beste lan batzuk gehiago sal-

duaz orekatu dugu. Batzuk aipatzekotan, Literatura Klasiko zein Sariketako liburukiak.

Esan gabe doa, Durangoko Azoka, produktuen salerosketarako zita gertatzen dela, euskal kultura eta euskaltzaleen topagune ere izanik. Urrian *Libur*-en izan zen Euskaltzaindia, Madrilen, eta hagatik konparaketarako tentazioa: hura, Azoka askoz komertzialagoa da, «marketing»-a nagusi delarik. Profesionalentzako Azoka da; banatzaile, argitaletxe, liburudenda, inprentak e. a. beraien harremanak sendo ditzaten. Hori bai, arlo horretan arras interesgarria da. Durangokoak ordea, izaera herrikoiagoa dauka, eta irakurlea da protagonistak. Arestian aipaturiko topagune izaera hori kontuan izanik, Euskaltzaindiak bere zerbitzuak erakustez gain, bezero eta harpidedunekin dituen harremanak sendotzeko aprobetxatzen du; hots, hauek dauzkaten zalantzak, galderak, e. a. erantzunez.

Aurtengo edizioak, eguraldi ona lagun, jende gehiago erakarri du eta ohi legez, oso arrakastatsua izan da. Salmentak oro har onak izan dira. Aurretik ere aipatu dugun lez, aurtun eraikin berria estreinatu da, honen abantailak ugari izan baitira: argitaletxeentzako aparkalekua, zerbitzuak eskura, hotzik eza, e. a.. Erakustazoka, egun batzuk lehenago ireki eta ondorioz «azken ukitu» zenbait ere faltan bota dira. Hurrengo urterako konponduak izango direlakotan gaude eta honi gaineratzen badiogu Kafe Antzokia ere irekita izango dela (eskaintza kulturalen ugaritzea ahalbideratuz), Durangoko Azokari etorkizun polita iragartzen diogu.

Eskainitako zerbitzuez aparte, Euskaltzaindiaren presentzia agerikoa izan da, Azokaren inguruan antolatuta diren zenbait ekitalditan. Horrela gauzak, euskaltzain urgazlea den Jose Mari Iriondok sarrera hitzaldia eman zuen «Euskara irratietan...» *Euskera* agerkari honetan argitaratzen baita; Jose Luis Lizundia, euskaltzain osoak: «Emakumeak idazle Durangerrian» eta Luzien Etxezaretak, euskaltzain urgazleak, ere mahainguru baten parte hartu zuen.

\* \* \*

2003an, omenaldi eta sari gisa ematen den *Argizaiola*, Gerardo Bujandari banatu zaio, euskal kulturaren alde egin duen lan oparoagatik. Gerardo, Loiola Irratiko sortzaileetakoa dugu eta Radio Euskadik, Donostialdean bere garaian izan zuen berri-emale klandestinoa.

2003.eko abenduaren 19an

Ricardo Badiola Uriarte,  
argitalpen eragilea

Jon Artza Bikandi,  
argitalpen banaketa arduraduna